

DIALEKTOLOGIA BARNE JARDUNALDIAK

Markina, 1983-IX-25

Jose M.^a Etxebarria

Akta honen bidez Euskaltzaindiari eta zuei, Dialektologia Jardunaldien berri emongo deusuegu. Batzordeko aktan agertuko dira zehatzago partaideak eta egin diran lanak.

Jardunaldi honein egitaraua hau izan zan:

1. Traskribaketak zelan egin.
2. Itaunketa zeri buruz.
3. Organigrama atlasa martxan jartzeko.

1. Horretarako erabiliko dogun alfabeto fonetikoa erabaki dogu puntu nagusietan eta itaunketaren zati nagusienak aukeratzeko erizpide batzuk jaso ditugu. Lan honetan Dialektologia batzordekorik gehienak egon dira eta J. Allières Toulous-eko unibertsitateko irakaslea eta Georges Rebuschi Nancy-ko unibertsitatekoak heuren laguntza emon deuskue.

Plangintza hau betetzeko organigrama barri bat aurkeztu deuskue Euskaltzaindiko batzar iraunkorrekoak eta hori be eztabaidatu dogu. Iritzi desbardinak kontuan izanik onartu dogu organigrama hau. Dialektologia batzordearen barruan azpibat-zorde honeik egongo dira:

— Kontseilarien batzordea: J. Allières, A. Irigoien, K. Mitxelena, B. Oyharzabal, G. Rebuschi eta K. Rotaetxe.

— Batzorde teknikoa: J. Haritschelhar, G. Aurrekoetxea, Ana M.^a Etxaide, Ch. Videgain eta idazkari bezala, J. M.^a Etxebarria.

— Lankideak: orainarte Dialektologia batzordeko izan diran guztiak gura bada-be.

Kontseilari batzordearen zeregina, sortzen diran zalantzak eta eztabaidak argi-izea izango da eta eskatuko jakezan itauneri erantzutea.

Batzorde teknikoaren zeregina, itaunketa prestatu, eta plangintza egin hori betetzeko. Lan guztiaren arduradun nagusiak izango dira.

Idazkariak batzorde teknikoaren erabakiak bete eta betearazoko ditu, bai itaun- ketari buruz, bai grabaketei buruz eta bai plangintzari buruz. Batzorde teknikoak iri- ztiak emongo ditu baina botorik ez dau izango.

Lankideak: itaunketa prestatzerakoan, eta grabaketak egiterakoan parte hartu eta gero grabaketak eta traskribaketak egiterakoan erabakiko diran baldintzak bete.

Kontseilarien eta lankideen batzordea ez dira itxiak oraingoz.

Gero Vienan dagozan grabaketa batzuen barri jakin gendun J. M. Etxebarriaren bitartez eta Ana Etxaidek saio legez egin diran grabaketak aztertu zituen.